



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

KAZETARITZAKO GRADUA

2017-2018 IKASTURTEA

SORMEN PROIEKTUAK: IRRATI DRAMATIKO BAT SORTZEA GIDOITIK AUDIO-POSTPRODUKZIORAINO

EGILEA: GARAZI ZABALETA URKIOLA

ZUZENDARIA: MIREN ARANTZA GUTIERREZ

2018ko maiatzaren 24a

AURKIBIDEA

1. Irrati dramatikoaren definizioa eta ezaugarriak.....	1
2. Irrati dramatikoaren historia.....	2-3
2.1. Irrati dramen hastapenak Espainiako Estatuan.....	2
2.2. Eta gurean zer?.....	3
3. Irrati dramatiko motak.....	4
4. Eredu ezberdinak.....	5
5. Azalpen memoria.....	6-7
5.1. Irrati Dramatikoaren GRALaren aukeraketa.....	6
5.2. Irrati dramatiko motaren eta gaiaren hautua.....	6-7
5.3. Sinopsia.....	7
6. Hasieratik bukaerara, jarraitutako pausoak.....	8-13
6.1. Gidoiaren sorkuntza.....	8
6.2. Pertsonaien eta ahotsen aukeraketa.....	8-9
6.3. Grabaketa.....	9-10
6.4. Postprodukzioa.....	10-11
6.5. Espazioa eta denboraren sorkuntzarako elementuak.....	12-13
7. Lan kronograma.....	14
8. Bibliografia.....	15-16
9. <i>Hautsaren ahotsa</i> Gidoia.....	17-22

1. Irrati dramatikoaren definizioa eta ezaugarriak

Arte dramatikoak eta irratiak bat egiten duten puntua da irrati dramatikoa, izenak adierazten duen bezala. Definizio zehatz bat eta bakarra ematea zaila izanik ere, esan liteke irratiaren emititzeko sortzen diren fikziozko piezak direla irrati dramatikoak oinarrian. Sortzaileak aukeratutako espresio modu ezberdinen arabera, irrati dramatiko eredu ugari eta anitzak aurki ditzakegu. Zer dute amankomunean guztiek? Bada, irrati hizkuntzaren elementuak erabiltzea fikziozko istorioak kontatzeko orduan (errealitateari buruzko fikzioak ere izan litezke).

Lau dira irrati hizkuntza osatzen duten elementuak: ahotsa, musika, soinuak eta isiltasuna. Irrati gainontzeko generoetan bezalaxe, irrati dramatikoa ere lau elementu horien bidez osatuko da kontatu nahi den istorioa, pertsonaien izaera edota giroa. Zinemak eta telebistak ikusentzunezko hizkuntza darabilten bitartean, irratiaren irudirik gabe eginen da kontakizuna. Baliabide sonoroekin soilik osatu beharko du kontakizuna egileak, beraz, horrek dakartzan onura eta zailtasun guztiekin.

Izan ere, irrati dramatikoa istorioak kontatzeko bestelako moduetatik ezberdintzen dituen onuretakoa bat da hartzailearen imajinazioa pizteko duen indarra. Irudien faltan, mezuaren interpretazio moduak zabaldu egiten dira, eta kasik esan liteke entzuleak adina irakurketa egon litezkela entzunezko istorioetan. Irrati dramatikoa agertzen diren pertsonaien, paisaien edota tokien ezaugarriak hartzaile bakoitzak bere imajinazioari tiraka osatuko ditu, garrantzia berezia hartzen du entzulearen interpretazio propioak.

Aipatzekoa da, baita ere, hartzaileei entzunezko komunikazio bideak eskatzen dieten esfortzu eta ahalegin gehigarria, irrati dramatikoa kasu. Zinemak gertatzen ez den bezala, zentzumen bakarraren bidez jasotzen dute mezua irrati hizkuntzaren istorioen hartzaileek. Sortzaileak oso ongi erabili beharko ditu irrati hizkuntzako elementuak, beraz, hartzaileak kontakizuna osotasunean ulertu eta beharrezkoak ez diren informazioekin despistatu ez dadin.

2. Irratiko dramatikoaren historia

Irratiaren urrezko urteetan, 1930. eta 1950. hamarkaden bitartean egin ziren ezagun irratia dramak AEBetan. Segituan zabaldu ziren Europara eta mundura, eta 1930eko hamarkadan jada ospe handia hartu eta etxe guztietara iritsi ziren. 1938. urtean ezagun egin zen Orson Wellesen *Munduen gerrak* irratia drama. Erabateko oihartzuna lortu zuen AEBetan eta irratia historian gertakizun garrantzitsu izatera pasatu zen: entzule estatubatuarrek Wellesen fikziozko kontakizuna egia zela sinetsi zuten eta kaosa zabaldu zen herrialdean zehar.

1930-1950 hamarkaden bitartean eutsi zioten arrakastari irratia-nobelek. Garai hartan, egun telebista hartu duen papera betetzen zuen irratia: familia osoak elkartzen ziren irratia bueltan hark kontatuko ziena entzuteko asmoz. Gure gurasoen belaunaldian oraindik ohiko zen eskola edo lanetik irten eta etxera korrika joatea momentuko irratia nobela arrakastuaren eguneko kapitulua entzuteko. Telebista merkatuan sartzearekin batera, ordea, irratia (eta ondorioz, irratia dramen) galera nabarmena izan zen, eta irudiek hartu zuten ordu arte soinuak etxeetan zuen protagonismoa.

2.1 Irrati dramen hastapenak Espainiako estatuan

30. hamarkadan jada Espainiako estatuan 3 milioi irratia-hargailu zeuden, 90 biztanleko bat, gutxi gora behera (Duarte, 2014). 40-50. hamarkadetan zehar asko zabaldu ziren irratia-espazio dramatikoak. Programa horiek gerra ondorengo eta pobrezia egoerako errealitateak ihes egiteko aukera ematen zieten herritarrei.

Diktadura frankistaren garaian, helburu propagandistikoak nagusitu ziren Espainiako irratigintzan. Erregimenaren ideologia eta balioak zabaltzeko erabiltzen zituzten komunikabideak, baita irratia ere. Saio informatiboetan ezezik, irratiko entretenimenduzko saioetan ere nabarmena izan zen eragin hori urte guzti horietan. Irratiaren oparotasun urteetan, negozio bilakatu ziren irratinobela eta irratia antzerkiak, eta irratia kate handienek fikziozko apustua egin zuten antzezle taldeak sortuz. Radio Madrid izan zen aitzindarietakoa, eta Teofilo Martinez garaiko ahotsik ezagunenetakoa Espainiako irratiko fikziozko gintzan.

2.2 Eta gurean zer?

1987 inguruan hasi ziren lehen aldiz euskaraz irratiarako fikziozko istorioak lantzen. 1992an Arantxa Iturbe idazle eta kazetariak “Maite, maite, maitea” irrati nobela idatzi zuen, gerora Euskadi Irratian emitituko zutena. Euskarazko lehenengo irrati nobela ofizialtzat har daiteke Iturberena, baina aurreko urteetan ere egon ziren irrati fikziozko istorio laburrak sortzeko saiakerak. Honela azaldu zituen Iturbek euskarazko irrati dramen hastapen horiek:

“Orain dela bost urte, *Goizean behin* saioa egiten hasi ginenean, saiakera bitxi bat egin genuen euskaraz irrati nobelarik ez zegoela ikusirik. Horrela, *Kale kontuak* egiten hasi ginen. Irrati nobela modukoa zen, bost minutuko kapituluak zituen, eta irrati bertako jendearekin burutu genuen. (...) Nik idazten nituen gidoiak, baina idazteko modu oso berezia zen. Kaleko kontuak ziren, familia baten inguruan sorturiko istoriak, topikoz beteta. Betiko muntaia zen, oso gauza etxeakoak, baina irrati nobela gisa idatzi nuen. Ondoren, beste urtebetez, *Odriozola Hotela* egin genuen. Bost minutuko kapituluak ziren, kontu arruntez beterik, eta hau ere beste irrati nobela txiki bat zen. Aurrekoak bezala kapitulu asko zeukan, berrehunetik gora. Ez ziren inoiz bukatzen, beti zuten jarraipena. Dena den, irrati nobela bezala planteatuta, ‘Maite, maite, maitea’ da lehenengoa.” (Argia Aldizkaria, 1992-11-01)

Gaur egun, gutxi dira euskarazko irrati gintzan emititzen diren fikziozko istorioak (Gutierrez eta Fernandez, 2005: 133). Irratiaren kontsumoa azken 20 urteetan antzeko mailan mantendu bada ere (AIMC, 2018), irrati dramak sortzeko aurrekontu altuen ondorioz pixkanaka desagertzen ari den generoa da. Gaur egun, gehiago erabiltzen da publizitatean edo beste saioen barruan, esketx moduan.

Dena dela, EiTb taldearen irrati etan nahiz hainbat irrati libretan sortu dira zenbait irrati dramatiko azken urteetan. Aipatzekoa da, esaterako, Gasteizko Udalak EiTb taldearen laguntzarekin urtero antolatzen duen Perez Uralde Irrati Antzerkien lehiaketa. Euskarazko eta gaztelaniazko lanak aurkezten dira lehiaketa horretan.

3. Irrati dramatiko motak

Fikziozko piezen luzeraren eta emisio aldien arabera, bost irrati dramatiko mota bereizi ditzakegu (Gutierrez eta Fernandez, 2005: 135):

- **Irratidrama osoa:** emisio bakarrean hasi eta bukatzen den ekintza da. Fikziozko pieza oso bat da irratidrama mota hau, eta hasiera batean sortzeko errazena dirudien arren, zailtasun berezia dauka: emisio bakarrean aurkeztu beharra dira pertsonaiak eta egoerak. Pieza horien laburtasunak idazkera arin eta zehatza behar du ulergarria izan dadin.
- **Irrati antzerkia:** antzerkirako idatzita dagoen testu dramatiko bat irratian 'antzezteko' egokitzean datza. Fikzio mota hau nagusitu zen irrati dramatikoaren hastapenetan. Irrati drama osoaren edo irrati-nobelaren formatua izan dezake. Antzerkirako obra baten moldaketa egiteak ere badu bere zailtasuna: jatorrizko lanaren edukia bere osotasunean ez trasladatzeko arriskua dauka beti.
- **Irrati dramatikoaren seriea:** hainbat programek osatzen duten irrati dramatikoa da, istorio independenteko atalek osatzen dutena. Beraz, aurreko atalak entzun beharrik izan gabe uler dezake entzuleak edozein ataletan kontatzen den istorioa. Fikziozko kontaktuzunean zehar, pertsonaia bat edo batzuk errepikatu egiten dira, eta horiek dira istorioari jarraikortasuna ematen diotenak. Publikoaren eta pertsonaien arteko identifikatzea lortzea da irrati dramatiko horien helburua, baina baita zailtasuna ere.
- **Irrati-nobela:** istorioa hainbat ataletan kontatzen da, baina serieen kasuan ez bezala, nahitaezkoa da atal guztiak edo gehienak entzutea istorioaren haria ez galtzeko. Irrati dramatikoaren artean generorik zailenetarikoa da, istorioak iraun bitarteko atal guztietan publikoaren interesa mantentzea nahitaezko baitu.

4. Eredu ezberdinak

Duela hiruzpalau urte izan nuen lehen aldiz irrati dramatikoekin harremana, etxez aldatu nintzenean eta etxe berrian telebistarik ez zegoela ikusita irrati dramatikoak bilatzen hasi ginenean. Interneten begira, *Kaliman, el hombre increíble* irratinobela mexikarrarekin egin genuen topo. 1963 eta 1991 artean aritu ziren Mexikon nobela hori emititzen, eta fama handia lortu zuen Hego Amerikan zehar. Gaurko ikuspegitik begiratuta, ordea, irrati nobela horren eredia zertxobait zaharkitua gelditu dela esango nuke: Kaliman superheroia abenturak kontatzen dituen kontakizun honetan deskribapen oso luzeak dira nagusi, eta ekintzak kontatu baino ekintza horien eta pertsonaien gaineko azalpen zehatz-zehatz eta luzeek hartzen dute kontakizunaren denbora gehiena. Narratzailearen lokuzioan ere, hiperboleak eta esajerazioak nagusi dira, Kalimanen pertsonaia goratzeko helburua dutenak.

https://www.ivoox.com/podcast-podcast-kaliman-hombre-increible_sq_f182374_1.html

Gaurkotasun handiagoa duten irrati nobelei dagokionez, aipatzekoak dira Espainiako Radio Nacional de Españak sortzen dituen *Ficción Sonora* atalerako irrati nobelak. Atal horretan dauden hainbaten artean, *Bienvenido a la pasarela* izenekoa jarraitu dut, esaterako. Hil berri den emakume bat 'pasarelan' dago orain, hil ondorengo eskenatoki bitxi batean. Emakumeak bertan izango dituen gorabeherak kontatzen dira fikziozko pieza honetan. Muntaiari dagokionez, Kalimanen irratinobelak baina askoz erritmo handiagoa duela nabaria da, musikak eta soinu efektuek askoz garrantzia handiagoa hartzen dute eta irratinobelari errealismoa eta naturaltasuna ematen diote. Nire irratidrama piezak honen antza handiagoa du muntaiaren eta kontakizunaren eredu aldetik.

www.rtve.es/alacarta/audios/bienvenido-a-la-pasarela/

Bestalde, irratidramak istorioak kontatzeko ezezik, gai konkretu baten gainean jendea kontzientziatzeko erreminta ere izan daitezke. Badaude horren adibide ugari, baina bat aipatzearren, Pamela Palencianoren *No sólo duelen los golpes* irrati nobela hartuko dut. Izen bereko bakarrizketaren adaptazio bat egin zuen irratirako Pamela Palencianok, eta benetan berari gertatutako istorioetan oinarrituta genero bioentziaren inguruan jendea kontzientziatzea izan zuen helburu. Hainbat kapitulu grabatu zituzten, eta hemen daude guztiak entzungai:

<http://www.rednosotrasenelmundo.org/no-solo-duelen-los-golpes-de>

5. Azalpen memoria

5.1. Irrati dramatikoaren GRALaren aukeraketa

Gradu amaierako lanerako nire aukeren artean 'bereziarena' zen *Sormen proiektuak: Irrati Dramatiko bat sortzea gidoitik audio-postprodukzioraino* deiturikoa. Bereziarena, Kazetaritzako Gradutik etorruta, nire ikasketekin zuzenekeko harremana zuten beste zenbait aukerekin alderatuta (aldizkari baten sortzea, erreportaje sakona...) zertxobait aldentzen zelako. Zergatik aukeratu nuen, orduan? Hasteko, Kazetaritza ikasketei ekin baino lehenago, bi urtez Irudi eta Soinu ikasketak eginak nituen, eta beraz, orduko nire jakintzak nolabait berritzea eta eguneratzea izan da nire asmoetako bat. Batez ere ikus-entzunezko ikasleei zuzendutako GRAL hau aukeratu nuen, beraz, kazetaritzarekin ezezik ikusentzunezko munduarekin harreman pixka bat ere banuelako.

Bestetik, kazetaritzako graduan zehar errealitatearen kontakizunari eta interpretazioari begira egon gara beti, eta fikziozko sorkuntza faltan somatu dut. Horregatik, arantza hori ateratzeko aukera egokia iruditu zitzaidan GRAL hau. Fikziozko istorioak idaztea gustoko izanik eta irratirako pieza txikien sorkuntzan lehenagotik nolabaiteko esperientzia izanda (kuña laburrak egiten batez ere), aukera egokia iruditu zitzaidan irradi dramatikoarena. Gainera, irratia nik neuk informatzeko euskarrien artean gehien erabiltzen dudana da, eta hainbat irradi dramatiko jarraitu izan ditut azken urteetan. Guzti hori kontuan izanda, erronka polita izan da niretzat irradi dramatikoa sortzearena, hasieratik amaierarainoko prozesua bizitzea.

5.2. Irrati dramatiko motaren eta gaiaren hautua

Behin GRALa egiteko gaia esleitu zidatenean, lanean hasi baino lehen erabaki bat hartu beharra nuen: zein motatako irradi dramatikoa sortuko nuen? Hainbat aukera nituen eskuen artean: atalka emango zen irradi-nobela baten proiektua landu eta atal erdi bat grabatzea, 10-15 minutuko antzezlan bakarra eta orijinala sortzea edota ipuin, pelikula edo antzerkiren baten moldaketa egitea.

Zalantza dezente izan ondoren, azkenean antzezlan bakar eta orijinala egitea erabaki nuen. Izan ere, irradi dramatiko bat sortzeko funtzionatu zezakeela uste nuen istoriotxo bat

idatzita neukan lehenagotik, zenbait urte lehenago gertatu zitzaidan pasarte batetik aterata: egun bizi naizen baserriaren aurrean gizon bat topatu nuen etxeari begira behin, hizketan hasi eta duela 70 urte etxe horretan jaiotakoa zela kontatu zidan hark. Bere familia urte askoan bertan bizitu zen, kanpora bota zituzten arte. Etxea ikustera gonbidatu eta sartu zenean, garai batean guztia nola zegoen azaltzen aritu zitzaidan begiak malkoz beteta: bera zein txokotan jaio zen, bere ama non egoten zen, gela bakoitza norena zen...

Pasarte hartan oinarritu naiz *Hautsaren ahotsa* dramatikoaren gidoia idazteko orduan, nahiz istorioari gauza asko gehitu dizkiodan kontakizuna, pertsonaiak eta bukaera osatu ahal izateko. Nire helburua baserri baten lekukotasunarekin garai bateko bizitzaren eta gaur egungoaren arteko lotura egitea zen. Uste dut gaurkotasan handia duen gaia dela, izan ere, baserriaren iraganaz, egungo egoeraz eta etorkizunaz asko hitz egiten da azken aldian. Garai bateko baserriarren bizitzaz, ohiturez edota lan egiteko moduez interesa badago, ziurrenik azken urteetan denbora tarte laburrean garai bateko bizitza horren erabateko etetea ematen ari delako. Batzuk erabateko eten hori eman ez dadin lanean dabil-tza, belaunaldien arteko transmisioa bultzatzen eta iraganeko jakinduria baliotan jartzen. Hor daude, esaterako, Asier Altunaren *Amama* filma, Izaro Gonzalez Iregiren *81 amama* dokumentala edota Miren Tirapuren *Atte hil aurretik* antzezlanak.

Jakin banekien gai hori irratira eramatea eta aurreko belaunaldien eta egungoen lotura hori soinuekin soilik egitea ez zela lan erraza izanen, baina zailtasunak zailtasun, erronka polita iruditu zitzaidan.

5.3. Sinopsia

Hiriko bi gaztek baserri bat okupatu dute herri txiki bateko mendiko auzoan. Bertan euren pentsatzeko moduarekin koherenteago izanen den bizitza egiten hastea da asmoa: baratze ekologikoa, herri txiki bateko bizitza,... Ustekabean, ordea, baserrian sartu eta bertan topatuko dituzten magnetofoi eta grabazio zahar batzuen bidez, aspaldiko garai baterako bidaia eginen dute: hamarkadak lehenago baserri hartan bizitu izan zen familiaren grabaketak topatuko dituzte etxean, hautsez hartuta, baina oraindik erreproduzitu eta entzun daitezkeenak. Grabazioetan entzundakoari eta ondoko baserrikoek kontatu diotenari pista jarraituz, familia hartatik geratzen direnekin harremanetan jartzen saiatuko dira bi gazteak.

6. Hasieratik bukaerara, jarraitutako pausoak

6.1 Gidoiaren sorkuntza

Lehenago aipatu bezala, esperientzia pertsonal batetik abiatu zen gidoiaren ideia nagusia. Aldez aurretik idatzita neukan istorio labur hori irrati dramatiko baterako egokitzea izanen zen pausorik zailena. Istorioaren oinarrian zegoena, helburu nagusia, zera zen: garai bateko bizimoduaren (eta jendearen) eta gaur egungoaren arteko lotura egitea, iraganaren eta orainaren arteko lotura, azken batean. Harreman hori soinuekin soilik egitea ez da lan erraza, eta honako galdera egin nion nire buruari: zein modutan agertu daiteke iragana irratan? Magnetofoiaren eta grabazio zaharren ideia etorri zitzaidan burura segituan.

Magnetofoiaren historian zertxobait arakatzen aritu nintzen nire istorioko garaiarekin bateragarria ote zen ikusteko. Eta bai, 60-70. hamarkadetan magnetofoiak bazeudela ikusi nuen, nahiz ez ziren ohikoak etxe guztietan. Horregatik, seme kazetariaren profila sartzearabaki nuen, baserri hartara magnetofoiak nondik nora iritsi zen justifikatzeko nolabait. Aipatzekoa da, seme kazetariaren ideiak ere baduela nire bizipen pertsonaletatik: osaba kazetaria dut, gaztetan EEBBetan ibilia, eta askotan imajinatu izan dut nola izanen zen bere hango bizitzaren eta Euskal Herriko bere familiaren baserriko bizitzaren arteko harremana garai hartan.

Momentu edota toki ezberdinetan gertatzen diren lau eszena bereizi ditut gidoiean. Behin gidoia gutxi gora behera zehaztuta eta antolatuta izanda, bigarren pauso batera pasatu nintzen: pertsonaien aukeraketara.

6.2 Pertsonaien eta ahotsen aukeraketa

Kontakizunean pertsona gehiago azaltzen badira ere, kasu gehienetan bi protagonisten eta Iñakiren pertsonaiaren bidez ekartzen dira besteen ahotsak istoriora. Adibidez, ondoko baserriko amonaren kontakizuna zeharka ageri da, Karlos protagonistaren ahotsetik.

Beraz, bi protagonista nagusi eta hirugarren pertsonaia garrantzitsu batek dute kontakizunaren pisu handiena: Karlos eta June gazte okupak, protagonistak, eta Iñaki (edo Inaxio) Almandoz familiako semeak, kazetariak. Ahotsen aukeraketa egiterako orduan lehenengo banaketa euskalkiena izan zen: gazte okupak hirikoak izanik (aipatzen ez bada ere, Iruñea

ingurukoak), euskara batua erabiltzen dute, noizbehinka erdarakada batzuk ere sartuz. Iñakiren eta Almandoz familiako beste kideen euskara, berriz, Nafarroa iparraldeko euskalkia izatea erabaki nuen (Leitzaldekoan, zehazkiago).

Hizkeraren ezberdintasun horiekin istorioaren oinarrian dagoen banaketa eta lotura egitea zen asmoa, nolabait: garai bateko bizitzarekin harremana dutenek beren euskalkian hitz egiten dute, eta egungo bizitzaren ordezkariak, hiriarekin lotuagoak, euskara batua.

Aipatzekoa da, baita ere, Iñakiren eta Mamenen ahotsak beraien bizitzako bi momentu ezberdinetan agertzen direla kontakizunean: bata, beraien gazte garaian, magnetofono grabazioan entzuten den elkarrizketa horretan, eta bestea gaur egun, jada adineko pertsonak direla. Ahotsek denborarekin jasaten duten aldaketa eragiten saiatu naiz, efektu ezberdinak erabiliz. Esaterako, bi pertsonaia horien gaztetako ahotsak normal utzi ditut, baina zahartuta agertzen diren momentu horietan grabatutako ahotsari eta tonu baxuagoa jarri, adinaren aldaketa hori nabarmentzeko. Hala ere, esan beharra dago emaitzean ez dela gehiegi antzematen efektua. Izan ere, efektuekin ahotsak asko aldatuta oso artifizial gelditzen ziren, eta nahiago izan dut neurri txikiagoan erabili.

Aktore lanetarako inguruko jendea bilatu dut, ez dira antzezle profesionalak, eta hori ere nabaritzen da emaitzean. Saiatu ginen antzezteko erraztasuna duen jendea topatzen, lotsa gutxikoa eta gidoia irakurri baino antzeztu egingo zuena. Saiatu dira eta esango nuke lortu dutela nahiko era naturalean aritzea eta gidoia beraien espresioetara eramatea, baina egia da momenturen batean nabari dela gidoia irakurtzen ari direla. Hala ere, eta emaitza 'etxeko' samarra izanda ere, uste dut nahiko txukun gelditu dela azkenean.

Bestalde, istorioaren haria gidatzeko narratzailearen ahotsa erabili dut kontakizunean. Narratzailearen lana da hasierako egoera eta pertsonaiak aurkeztea, eta eszena batetik bestera pasatzerakoan loturak egitea. Deskribapenak dira nagusi narratzaile orojakilearen lokuzioan, beraz.

6.3 Grabaketa

Ahotsen grabaketak bi modu ezberdinetan egin ditut. Alde batetik, elkarrizketa gehienak Leitzako Karrape Irratiko estudioan grabatu ditugu, soinu teknikari baten laguntzarekin.

Bertan hiru mikrofono geneuzkan aldi berean grabatzeko. Elkarrizketak zuzenean grabatzeko aukera eman zigun horrek, hiru pertsonak aldi berean hitz egin bait zezaketen, bakoitzak bere mikrofonotik. Elkarrizketei naturaltasuna eta arintasuna eman zion horrek, nire ustez.

Audacity programa erabili genuen pertsonaien elkarrizketak grabatzeko. Aipatzekoa da, grabaketa eguneko elkarrizketa guztiak ez zirela espero bezain ongi atera: eszena bakoitzaren toma bat baino gehiago grabatu genituen Audacityko proiektu berean, ondoren muntaketan aukeratu ahal izateko. Proiektu berean pista berriak grabatzeko momentuan, ordea, aurretik grabatutako pisten soinuaren itzulera arazoa izan genuen, gu ohartu ere egin gabe. Ustez guztia ongi grabatu eta etxera itzultzean, lehen tomak soilik zeudela ongi ohartu ginen, eta zenbait grabaketa errepikatu egin behar izan genituen handik denbora batera. Errepikatu genituen grabaketa horiek irratiko estudioan beharrean eskuko grabagailuarekin grabatu behar izan genituen, eta momenturen batean nabaritu egiten da ahotsen aldaketa hori.

Aipatutako elkarrizketa horien errepikapenak, narratzailearen ahotsa eta zenbait soinu (txorien kantuek eta giro soinuak, esaterako) eskuko stereo grabagailu batekin grabatu ditut, Olympus markako Digital Voice Recorder WS-831 batekin, hain zuzen. Beste zenbait efektu interneteko soinu bankuetatik atera ditut, baina grabatzeko eskuragarri eta erraz nituenak nahiago izan ditut nik neuk grabatu, errealtasuna irabazten baitu kontakizunak modu horretan nire ustez. Eszena guztiek dute hasieratik bukaerara giro soinu propioa, eszena osoan mantentzen dena, jarraikortasuna eta osotasuna emateko.

6.4 Postprodukzioa

Behin elkarrizketa guztiak eta narratzailearen ahotsa grabatu eta efektu nahiz musikak lortuta, irrati dramatikoaren edizioari ekin nion. Ediziorako erabili dudana programa Audacity izan da, audio editore simple eta intuitibo honek nire lanerako nahikoa erreminta eskaintzen zizkidalako.

Lehenik eta behin, pertsonaien elkarrizketen eta narratzailearen grabaketen artean aukeraketa egin nuen: grabaketa ezberdinetatik egokien zeuden zatiak hartu eta elkarrizketak eta narrazioa osorik muntatu nituen. Behin elkarrizketak eta narratzailearen ahotsa auke-

ratuta eta ordenatuta izan ondoren, musika eta soinu efektuekin osatzeari ekin nion. Horretarako, Audacity programako lan mahaian ondorengo pistak banatu ditut:

- Bi stereo pista istorioko pertsonaien ahotsentzat (eszenaren batean hiru pista izan dira)
- Stereo pista bat narratzailearen ahotsarentzat
- Stereo pista bat musikarentzat
- Hiru stereo pista soinu efektu ezberdinentzat

Ahotsei dagokionez, guztiak bolumen berean jartzea izan da lehenengo lana, baita narratzailearen ahotsa ere. Horrez gain, musika eta soinu efektuak istorioan zehar zehazki behar zuten tokian muntatzen ere denbora eman dut. Horietako zenbaitetan, Fade In bidez txertatu ditut musikak eta efektuak, hau da, zerotik pixkanaka bolumena goratuz sartu dira istorioan, kolpean izan beharrean.

Lehenago aipatu bezala, zenbait pertsonairen ahotsekin (Iñakirena eta Mamenena kasu) denbora dezente pasatu dut lanean, euren gaztetako ahotsa eta zahartzaroko ahotsa ezberdintzeko. Ekualizazio eta efektu ezberdinen bidez saiatu naiz berez ahots bera den horri ezaugarri ezberdinak ematen, denboraren banaketa hori lortzeko. Eta estudioan eta grabagailuarekin grabatutako ahotsen ezberdintasunak nolabait berdintzen ere saiatu naiz, erreberberazioarekin eta ekualizazioarekin jokatzuz. Ezberdintasunak zertxobait txikitzea lortu dut, baina nabaritzen da hala ere elkarrizketa guztiak ez daudela modu berean grabatuak.

Posprodukzioan sortu zaizkidan arazoaren artean, nagusiena lehenago aipatu dudana izan da, grabaketatik eratorritako arazoa: Karrape Irratiko estudioan grabatutako pasarteetan, ahotsek erreberberazio handia zuten, eta erreberberazio horrek gela baten barruan grabatutako soinua sortzen zuen. Kalean gertatzen ziren eszenetan, hasierako eszenan kasu, erreberberazio horri buelta ematen saiatu naiz efektu ezberdinen bidez, baina ez dut emaitza egokia lortu azkenean.

6.5 Espazio eta denboraren sorkuntzarako elementuak

Soinuen bidez eszenak espazio ezberdinetan gertatzen direla azaltzea eta denboran zehar aurrera eta atzera jauziak egitea erronka izan da niretzat. **Denboraren elementuak** garrantzia berezia zuen gainera irrati dramatiko honetan, lehenaldiarekin lotura egitea baitzen asmoa. Hainbat elementu sonoro erabili ditut irrati dramatikoan garai eta momentu ezberdinak sortzeko:

1) Magnetofoniko grabazio zaharrak: bi gazteek baserri zaharrean topatzen dituzten magnetofoniko grabazio zaharrak dira irrati dramatiko honetan lehenaldiarekin lotura egiteko erabili ditudan erreminta nagusia. Grabazio horiek beste garai batekoak zirela erakusteko soinu efektu berezia sartu diet elkarrizketa horiei: magnetofoniko zaharrek atera ohi duten soinu hautsia, kraskatua eta zikiña eman diet ahotsei internetetik deskargatutako efektu baten bidez. Helburua da entzuleek segituan ulertzea elkarrizketa hori ez dela momentu horretan ematen ari, aspaldiko grabazio bat dela baizik. Denboran atzera jauzi bat egitea da asmoa, azken batean.

Grabazioaren soinu hautsi horrez gain, ahotsen ezaugarriek ere ematen dute elkarrizketa hori iraganean kokatzeko pistaren bat. Magnetofoniko grabazio zaharretan lřakiren eta Mamenen ahotsak pertsona gazteenak dira, tonu agudokoak. Gaur egungo beraien ahotsak berriz, tonu grabeagoa dute, ahots horien jabeak zahartu direnaren seinale. Ahotsen tonuan aldaketa hori ere narrazioaren denboran jauziak sortzeko erabiltzen saiatu naiz.

Azkenik, magnetofoniko grabazioen zati horretan hizkera ere erabili dut elkarrizketa zahar hori iraganean kokatzeko. Saiatu naiz lřakiren eta bere ama zenaren arteko elkarrizketa horretan ahalik eta euskara itxiena erabiltzen, adineko jendeak egun hitz egiten duen hizkera hori, alegia. Uste dut hizkera horrek ere pertsonen adinaren gaineko pista dezente eman ditzakeela. Ama-semeen arteko elkarrizketa horretan hitanoa ere helburu berberarekin erabili da.

2) Kontakizunaren denboran elipsiak eta trantsizioak: Lau eszena ezberdinetan dago banatuta irratidrama, eta eszena batetik bestera denboran jauziak egiten dira, elipsia dago. Denboran jauzi horiek adierazteko gehien erabili dudana elementua musikarena izan da: eszena (eta beraz, momentu jakin bat) amaitzen dela adierazteko musika pixkanaka

baxutzen doa, eszenatik ateratzen (Fade Out). Eszena berria hastean, berriz (eta beraz, beste momentu batera jauzi egitean), beste musika bat pixkanaka igotzen doa, pixkanaka planoan sartzen bezala (Fade In). Musikaririk erabili ez dudana jauzietan, soinu efektuek edota pertsonaien ahotsak musikaren paper bera bete dute: pixkanaka bolumena baxutuz doanean eszenaren amaiera adierazten da, eta pixkanaka bolumena altutuz doanean eszena/momentu eta toki berri baten hasiera iragartzen da.

Espazioaren sorkuntzarako, berriz, soinu efektu ezberdinak txertatu ditut muntaketan: kanpoan gertatzen ziren eszenetan, hasierako eszena horretan adibidez, txorien kantu soinuak eta mendiko soinuak erabili ditut bi gazteak baserrian daudela kokatzeko. Atearen kolpe soinuekin eraikin batean sartu nahiean daudela adierazi nahi izan dut.

Azken batean, giro soinuak ematen dizkio pistak entzuleari eszena bakoitza non gertatzen den imajinatzeko: kafetegiko soinuak, txorien kantuak, etxe barruan ematen diren pausoen eta atearen soinuak... Bestalde, narratzailearen ahotsak ere eszena bakoitzean espazioaren deskribapena egiten du, hartzailea kokatzeko helburuarekin.

7. Lan kronograma

Hasiera batean GRALa otsaileko deialdian aurkezteko asmoa banuen ere, segituan ohartu nintzen uste baino denbora gehiago eskatuko zidala lana amaitzeak. Gidoia nahiko azkar idatzi nuen ideia oso garbi nuelako buruan aspaldidanik, baina grabaketetan sortutako arazoek epeak atzeratzera behartu naute. Gutxi gora behera, ondorengo lan egutegia jarraitu dut lanarekin hasi nintzenetik bukaeraraino.

AZAROA - ABENDUA	URTARRILA- MARTXOA	APIRILA	MAIATZA
Gidoia idatzi, aktore lanetarako pertsonak lotu	Grabaketak egin eta gaizki ateratakoak errepikatu	Edizioarekin eta idatzizko txostenarekin hasi	Edizioa eta idatzizko txostena amaitu

8. Bibliografia eta webguneak

-Gutierrez, Arantza eta Fernandez, Itxaso (2005). "Irratsaio bat egiteko taller praktikoa".

Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea

-Gutierrez, Arantza (2002). "Euskal irratigintzaren historia". Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea

-Rodero, Enma eta Soengas, Xosé (2010). "Ficción radiofónica: cómo contar una historia en la radio". Madril: Instituto Radio Televisión Española

-AIMC Asociación para la Investigación de Medios de Comunicación (2018). "Marco General de los Medios en España". [On-line] Eskuragarri hemen: <https://www.aimc.es/a1mc-c0nt3nt/uploads/2018/02/marco18.pdf> [Kontsulta eguna: 2018-05-24]

-Duarte Sierra, Matheo (2014). "Los seriales de la radio española". [On-line] Eskuragarri hemen: <https://matheods.wordpress.com/2014/05/13/los-seriales-de-la-radio-espanola/> [Kontsulta eguna: 2018-05-24]

-Apuntes de Comunicación para estudiantes de la Universidad Autónoma 'Gabriel René Moreno'. "Taller de Radio II: El radiodrama". [On-line] Eskuragarri hemen: <https://apuntescomunicacionuagrm.wordpress.com/2015/09/21/el-radiodrama/> [Kontsulta eguna: 2018-05-24]

-Facultad de Estudios Superiores Avcatlán de la Universidad Nacional Autónoma de México. "Taller de Guión I". [On-line] Eskuragarri hemen: <https://tguion.weebly.com/radiodrama.html> [Kontsulta eguna: 2018-05-24]

-Goikoetxea, Joxi (1992). "Arantxa Iturbe: 'Imajinazioa lantzeko aukera eskaintzen dute irrati noblek'". Argia Aldizkaria. [On-line] Eskuragarri hemen: <http://www.argia.eus/argia-astekaria/1407/imajinazioa-lantzeko-aukera-eskaintzen-dute-irrati-nobelek> [Kontsulta eguna: 2018-05-24]

-Red Nosotras El Salvador (2015). “No sólo duelen los golpes’, de monólogo a radionovela”. Red nosotras en el mundo. [On-line] Eskuragarri hemen: <http://www.rednosotrasenelmundo.org/no-solo-duelen-los-golpes-de> [Kontsulta eguna: 2018-05-24]

-Hernández, Carlos (2014). *Káliman, el hombre increíble*. [Audio podcast-a] Eskuragarri hemen: https://www.ivoox.com/podcast-podcast-kaliman-hombre-increible_sq_f182374_1.html [Kontsulta eguna: 2018-05-24]

-Radio Televisión Española (2017). *Bienvenido a la pasarela*. [Audio podcast-a] Eskuragarri hemen: www.rtve.es/alcanta/audios/bienvenido-a-la-pasarela/ [Kontsulta eguna: 2018-05-24]

9. Gidoia

Hautsaren ahotsa

LEHEN ESZENA

(Mendiko soinuak, txorien kantu soinuak. Bat-batean, kolpe soinuak entzuten dira: bi gazte baserri bateko ateari kolpeka ari dira, zerraila indarrez ireki nahian).

JUNE: (Ahots baxuan) Joder, ez da irekitzen...

KARLOS: Ez al zenuen begiratu nola irekitzen diren zerrailak ba, June?

JUNE: Bai, Karlos, bai, begiratu nuen. Baina zerrail hau zahar-zaharra da, torniloak erabat herdoilduta dauzka...

KARLOS: Joder, mugitu beharko dugu ba, auzokoak enteratu baino lehen...

JUNE: Auzokoak baino apuro gehiago ematen didate niri txakurrek... Ea, hemen bultzatuta agian... Lagundu *a ver...* bat, bi, eta hiiii...ru! (Plas! atea zabaltzea lortzen dute. Soinua atera du irekitzerakoan, ñiiiiii)

KARLOS: Alaaaaa, kristona da hau! Zenbat urte ote dira inor ez dela baserri honetara sartzen?

JUNE: (Eztulka) Jode, ez dakit, baina hauts kantitatearen arabera neurtuko bagenu asko, ikaragarri pila! Benga, itxi atea norbaitek ikusi baino lehen. Goazen etxeari bistazo bat ematea Karlos. (Pausoak entzuten dira) (MUSIKA: ANARI INTROA)

NARRATZAILEA: *2010eko udaberria. Nafarroa iparraldeko herritxo batean dago Maxurrenea baserria. Maxurrenea baserria, edo hartatik gelditzen dena, egun jada inor gutxi oroitzen baita baserri hark izenik ba ote duen ere. (Objektu bat lurrera erori eta haustean kolpe soinua)*

JUNE: Zer gertatu da, Karlos? Ongi al zaude?

KARLOS: Bai, bai, lasai June. Jarroi zahar bat erori da, hori da dena...

NARRATZAILEA: *June eta Karlos. Okupak. Edo lapurrak? Segun eta nori galdetu, bata edo bestea. Hiriko estresetik ihesi, beraien printzipioetatik hurbilago egonen den bizi molde baten bila datoz: baratze ekologikoa, mendiko lasaitasuna, herriko giroa... Ekologista, feminista eta antikapitalistak euren definizioz. Ondoko baserriko amonaren arabera, berriz, "hiritik heldu dien kalekume pare" (amonaren ahotsa). (MUSIKA GELDITZEN DA)*

(Pausoak entzuten dira, traste soinuak, baserriko gauzak begiratzen ari dira bi gazteak).

KARLOS: Bale, garbi dago kanpotik ematen zuena baino okerrago dagoela baserria barrutik. Kalkulatu behar genuke hemen bizitzen jartzeko ze obra egin behar genituzkeen, erosi beharreko materiala... guzti hori. Eta erabaki ea gelditzeak pena merezi ote duen edo beste nonbait probatu beharko dugun...

JUNE: Nola ba? Altura honetan atzera bota behar al gara? Nik esana diot Saiori definiti-boa dela, beraien salako sofa okupatzez utziko dudala behingoz...

KARLOS: (Barrez) A ze paradoja, sala bat okupatzetik baserri bat okupatzea pasatzea...

JUNE: Bai, pentsa... Alaaaaa! Begira hor, zer da tramankulu hori? Magnetofoi bat?

KARLOS: Jode, a ze katxarroa! Ta begira hemen ondoko kaja hontan dauden zinta boro-bil guzti hauek! Noizkoak ote dira?

JUNE: Puf, auskalo! Probatu ea funtzionatzen duen... zinta bat jarrita dauka, begira.

KARLOS: Bai zera, dena hautsak eta herdoilak hartuta dago eta...

JUNE: Pssssss (ixiltzeko agintzen dio 'play botoiari' ematearekin batera)

MAGNETOFOIKO GRABAZIOA: (Soinu zaharra)

Semea- Hemen naiz etxen, famillikin, Ameriketatik aiatu berritan. Ama, hitzein zaizo mikrofono honei!

Ama- Zer dok makina hoi, Inaxio?

KARLOS: Alaaaaa, hemen bizi zen familiaren grabazio bat da!

JUNE: Shhhhhh!!

MAGNETOFOIKO GRABAZIOA:

Semea- Magnetofonoa da, ama, Nueva Yorkeko irratin holakoxekin aitzen ga lanen.

Ama- Ta ze nahi dok ba nik esatea?

Semea- Eztakit ba, kontatu ze lanetan aizaten oaintxe...

Ama- Artazuritzen ai ga, ez aldok ikusten Inaxio?

Semea- Bai ama, baño eztakit ba, kontatu nola itten duzuen, ta zertako. Etza nei ai hizketan, hau dena grabatue geldittuko da noizpatte beste norbattek aitzeko!

Ama- Ba aurrena hemen bildue daukeun arto sail guzi honei ostoak kendu behar zaskio, ta gero aletu in beharrau eskukin raka-raka emanaz, hola (soinua entzuten da).

Alaba- Inaxio, oañe ai za lanetik eskapo! Uztazo makina hoi geroako ta toz zu re honea lanea!

Semea- Sarri bukatzea dijoa zinta, oaintxe noa Mamen, lasai! Esan zaiezo zerbatte honei, benga! Hara, bukatzea dijo... (Klak! zinta bukatzen da. Erreproduzitzaile soina entzuten da, brrrrr)

(MUSIKA: Bela Fleck - Sliding down hasiera FADE IN)

KARLOS: Jode! Oiloipurdia jarri zait June, begira. Ufa... zein ote da familia hau? Eta zer ote da beraiez?

JUNE: Buf, ba ez dakit noizkoa izanen den grabaketa, baina magnetofono zahar hau ikusita... ez dakit, 60. hamarkada baino beranduagokoa denik ez dut uste. Flipantea da makina zahar honek oraindik funtzionatzea...

KARLOS: Ba bai. Baina ez dakit, arraroa da, beste norbaiten etxean nagoen sentrazioa daukat orain. Ez dakit, beste norbaiten bizitzan, intimitatean, muturra sartzen ariko banitz bezala...

JUNE: Bai, badakit, nik ere badut sentrazio hori. Baina jode, etxe honek hutsik daramatza urte pila bat, hori badakigu. Ze desmadrea dagoen ikusi besterik ez dago... Ez dakit, Karlos, agian han goiko baserrian galdetu dezakegu zein bizi zen hemen, nortzuk diren grabaziokoak, ta saiatu gaitezke haiek lokalizatzen...

KARLOS: Ya. Pista batzuk badauzkagu: Inaxio izeneko kazetari bat, Ameriketara ibilia, Mamen bere arreba... Ez dut uste informazioa lortzea zaila izanen denik, ziur herrian denek ezagutuko dutela elkar. Joanen naiz ni goiko baserrira galdetzera. Itxi atea eta gelditu zu hemen, badaezpada.

(Musika - Bela Fleck - Sliding down FADE OUT)

BIGARREN ESZENA

(MUSIKA GELDITZEN DA, KOLPEZ)(Atea jotzen du norbaitek, tok tok)

KARLOS: (Ahots baxuan) June, ni naiz, ireki atea... (Ate soinua, ñiiiiii)

JUNE: Eta? Hitz egin duzu auzokoekin?

KARLOS: Bai, horko amonarekin egon naiz. Hasieran deskonfiatu xamar agertu da, baina euskaraz egiten nuela ikusita lasaitu da pixka bat. Pentsatzen genuen bezala, urte asko daramatza baserriak hutsik. Maxurrenea izena du etxe honek! Amonak kontatu dit Almandoztarrak bizitu zirela hemen urte askoan, gurasoak eta lau seme alaba ziren: hiru anai eta arreba bakarra. Semeak kanpora joanak, alaba gelditu zen gurasoekin haiek zahartu eta hil arte. Mamen delako hori, alegia. Aita hil eta gutxira hil omen zen ama, 82an. Etxea ez zen beraiena, alkilerrean zeuden, eta gurasoak hiltzean jabeek alaba kanpora bidali omen zuten, ez zioten etxea saldu nahi izan. Hirira joan omen zen, eta geroztik ezer gutxi dakite haiez, soilik analetako gazteena irratian aritzen dela lanean. Egunero entzuten omen dute gaueko notizietan esatari.

JUNE: Jode, a ze istorioa... Eta orain zer, anai horrekin kontaktatzen saiatuko gara behintzat, ezta?

KARLOS: Saiatu beharko... zinta zahar gutzi horiek emateko bada ere.

JUNE: Zu kanpoan egon bitartean beste grabazio bat entzuten egon naiz....

KARLOS: Eta??

JUNE: *Sin mas*, familiak sukaldean grabatutakoa zen, gaztaina jaten zeudela. Egia esan, umorekoak ematen zuten denek ere, ez dakit, elkar zirikatzen zebiltzan, algaraka... Sentrazioa dut gustora bizi zirela hemen, Karlos, familia lotuta zegoela, beren artean eta baita

baserriari ere. Eta amonak zuri kontatu dizunagatik, seguru penaz utzi zutela etxe hau gurasoak hil eta gero. Bizitza oso baten ondoren...

KARLOS: Ba bai... ez zen erreza izango. Gauza bat, badaukazu irratia mugikorrean?

JUNE: Bai, zergatik?

KARLOS: Gaueko notiziak hasiko direlako bost minutu barru...

(Irratia sintonizatzen ari dira, psssszzz ñiii, sintonizatzen dute kanala azkenean. Gaueko albistegiaren introa, esataria hizketan hasten da).

ESATARIA/IÑAKI: Gabon jaun andreok, 21:00ak dira, gaueko albistegiarekin hastera goaz.

JUNE: Bera da, Karlos! Inaxio da!

IRRATIA: *Gaueko albistegia Iñaki Almandozen eskutik.*

(Irratia fondotik entzuten da: "Etxebizitza hutsen kopuruak gora egin du azken bost urteetan Eustat erakundeak gaur argitaratutako txostenean adierazi duenez. EAEn jadanik etxebizitza kopuruaren %25 erabilpenik gabe dagoela ondorioztatu dute ikerketaren emaitzek. Gazteek etxebizitzarako sarbidean dituzten zailtasunen aurrean, erabilpenik ez duten bizitokien gainean neurriak hartzeko lanean dihardutela adierazi du gaur goizean lehendakariak Bilbon egindako prentsaurrekoan...)

KARLOS: Bale, badakigu orduan zer egin behar dugun... (IRRATIE FADE OUT)

HIRUGARREN ESZENA

(KAFETEGIKO SOINUAK FADE IN)

NARRATZAILEA: *Donostiako taberna batean jarri dute hitzordua Inaxio... zera... Iñaki Almandozekin. Azkar aldatu zaio gizonari ahots tonu serioa telefonoz Maxurrenea hitza entzun duenean.*

(KAFETEGIKO SOINAK OFF) **IÑAKI:** Nola?? Baserriko grabazioak aurkittu dittuzuela? Baño etxeke jabek han deus eztzegoala esan ziun ta...

(KAFETEGIKO SOINUAK ON) **NARRATZAILEA:** *Segituan eman dio baiezkoa gazteen elkartzeko proposamenari. Barandi tabernan, arratsaldeko 17:00etan.*

(Tabernako soinua, jendea, katilu soinua... ALTUAGO)

IÑAKI: Baño, ordun, baserrin bizi zate zuek oain? Etxea erosi duzue, edo? Jabek etziun saldu ere in nahi izan bere garaien, nahikoa aberastue zegoan hue...

JUNE: Ez, bueno, erosi ez... Alkiler sozial moduko batean gaudela esan daiteke... Jabee-kin ez dugu harreman handiegierik, egia esan. Zuekin biltzeak garrantzia gehiago zuen

guretzat, ez dakit, grabaketa horiek entzun ondoren nolabait zuen etxean geundela sentitzen genuen, jabeak zuek ez izanda ere...

IÑAKI: Ya, bai... Familin borron moduko bat in giñun handik bota ginttuenen. Gorra izan zen denantzat atte ta ama hil ondoren, etxea galtzea, ta horrekin gure familin histori guzie. Txartikoneko lau paretan arten gelditu zen gure ordu arteko bizie. Oain, behintzat, histori horren zatitxo batzuk rekuperatu dezazkeu grabazio hoikin. Eskertzen dizuet, anaiek ta bateze arrebak poz ikeragarrie hartuko due... Ta gauze bat, asko eskatzea ez bada, posible al litzeke eunen baten baserrie bixitatzea joatea? Zuek nahi baziñue, konpromisoik gabe...

KARLOS: Bai, noski. Pixka bat txukuntzen dugunean izan berharko du, hala ere... Bada-kizu, oraindik konponketa lanetan gabilta eta... (KAFETEGIKO SOINUAK FADE OUT)

LAUGARREN ESZENA

NARRATZAILEA: *Aste pare bat behar izan dituzte Karlosek eta Junek etxeko hautsak kendu eta zertxobait txukuntzeko. Abisua pasa bezain pronto, asteburuan bertan izan dute Almandoztarren bisita. Iraganera bidaiatzea bezala izan da haien istorioak entzutea. (MUSIKA FADE IN: Bela Fleck - Sliding down 1:43tik aurrera)*

(Almandoztarrak buila betean, etxea bixitatzen)

ALMANDOZTARRA1: Hemen txerritokie izaten giñun!

ALMANDOZTARRA2: Jo, ta akordatzen zatea hemen ganbarako lasto tarten jostetan aitzen giñenen?

ALMANDOZTARRA: Ai, zenbat ixtori hemen bizittuk!

ALMANDOZTARRA3/MAMEN: Gure ama hementxe eotten zen beti josten!

ALMANDOZTARRAK: Bai, ta hortxe espeatzen ginttun etxera zepelduk aiatzen giñenen zapatakin! Aze belarriondokoak jasoak dittun hementxe!

ALMANDOZTARRAK: Jajaja! Bai bai, earke akordatzen naiz ni belarriondoko hartaz! Sukalden negoan ni ta krixton sustoa hartu nun atea zun soñukin... Pentsatunun, adios, bukatu die Juanmarin parrandak...

ALMANDOZTARRAK: Baizea, earke kostako zen Juanmarin parrandak bukatzea...

NARRATZAILEA: *Begiak beteta, umetako emozioz hitz egiten dute anai-arrebek. Ez diete gehiegi galdetu June eta Karlosi alkiler sozialaren kontuaz... Usaituko dute zerbait, agian, baina etxeko ateak hainbeste urteren ondoren ireki dizkienen aurka ez dute ezer pentsatzerik. Eta, gainera, galdetzeko baino, kontatzeko gehiago dute gaur.*

ALMANDOZTARRA 4: Bai, Mamen! Ta akordatzeza artozuritzen jartzen giñenen? Beti aurkitzen zun Inaxiok aitzakin bat lanetik eskapatzeko!

IÑAKI: Bueno, bueno, aitzakie re ez eh! Attek ni hartzen niñun beti batzan jo ta fuego ait-zeko, zuek etxen lasai eoten ziñeten bitarten, asike lanetik eskapatzen nitzenik ezin duzue esan.... (FADE OUT AHOTSANA ETA MUSIKANA)

KARLOS: Bale, eta orain zer, June? Etxe hau zenbat maite duten ikusita, hemen gelditu behar al gara? Ez dakit, niri palo pixka bat ematen dit, haiek etxea erosteko prest zeuden bere garaian, eta gu orain hemen etorri, di-da okupatu, eta listo?

JUNE: Okupatu? Ez al zen ba alkiler soziala? (Barrez)

KARLOS: Ya, alkiler soziala...

JUNE: Ba nik inoiz baino argiago ikusten dut, Karlos. Hemen gelditu beharra dugu, etxe honi bizitza bueltatu beharra diogu, berriz ere istorioz bete. Ez dago garai bateko Alman-doz familiari eta Maxurrenea baserriari egin diezaiokegun omenaldi hoberik: hainbeste ur-tetako isiltasunaren ondoren, soinu pixka bat eskertuko dute lau pareta haiek... Goazen gelak prestatzea, Karlos...

(MUSIKA: BELA FLECK - BIG COUNTRY, FADE OUT)